

## KRISTAU FEDEAREN EGOERIA GAUR

Idazkiari jarri dautsodan izen-burua andiputz irudituko jako edonori. Orri labur batzutan ezeze, liburu oso baten be gai ori sakon eta egoki aztertzea gatxa izango litzake, eta bere ondorenak alan-olangoak beti be. Ez soziologi aldetik bakarrik, au da, fenomeno orrek gizartean dituan zabalera eta mailla ezbardin-ñen aldetik. Gatxa, batez be, gaiaren izategaitik beragaitik. Mikrofonia ago aurrean ipiñi, «Zer da zure bizitzan kristau fedea?» itandu, erantzunak apuntau, sailkapenak egin, euneko onenbestekoak atara eta «konkluziño zientifikuak» aurkeztea zientifikua izango da, baiña itaundu dan gaiaz ez dogu orregaz ia ezer lortu. Genteak momentu baten zer «esaten» dakian ikasi geinke bearbada or, baiña ez benetan *zer dan* euren bizitzan. Beraz, idazki au iru-lau puntu ikutu barik bakarrik egiten dituan gogoketa baiño ez da.

### 1. Kontzientzi kritikoa

Gure pentsakera eta bizikizun mundua sartaldekkoa dogu. Mentalidade au zientzi, filosofi eta istori-esperientzi osoaren frutua da. Gaurko gure kontzientzia edo ezagupen-balorapen zabalera. Giza istori barruan errazoiak eta esperientziak zabaldu daben ezagupen-balorapen orizontea. Orregaitik, sartaldeko pentsakera-mundua dala autortuz ez da esan gura sektoriala, guztiz lurralde batekoa danik. Ain zuzen be, sartaldeko kontzientzi barruko usteetariko bat au dogu: gure ezagupen erra-

zoziez konturatu ezker, beste lurraldeetako pentsakerak be aldatu egingo litzakezala. Au arrokeria izango litzake eta barrero be kontzientzi-eza, kritika-eza, sartaldeko pentsakera au giza-kontzientziaren azken mugatzat artua izango balitz. Baiña sartaldeko benetako kontzientzi kritikoak ez dau olakorik baieztatzen (ezin leike): ez da giza kontzientziaren azkena (edo obeto, ez dakigu azken orretaz eta beraz ezin geinke azkena danik esan), baiña istori barruko errazoi onen buruan kontzientzi kritiko au sortzen da, edo kontzientzi kritiko au ez da besterik istori barruko errazoi orreen kontzientzia baiño. Konkretoki, eta emen dagoigun arloan, esate baterako, au esan gura dogu: Latin-Amerikako kristautasun gazte ta biziak poztu egiten gaitu, eta duda barik eurakandik eta beste lurraldeetakoakandik zer ikasirik badogu! baiña kristautasun orri sartaldeko istori esperiantzia eta errazoiak eldu dakiozanean, pentsamentu mailan beintzat (eta neurri orretan bizitzan be bai) gure arazoak cukiko dabez: kristautasun orrek orduan beste kontzientzi bati aurea emon bearko dautso. Orizote barri orren barruan kristau fedea ulerbarritu egin bearko dau, errazoi orren orizote barruan ain zuzen be. Ez ditu erabilli bearko naitanaiez gure berbak eta irudiak, baiña esandako ulermen barria egin bearko dau.

Kontzientzi kritikoaren jarrera jatorra, gizonaren izate eta etorkizunari buruz, itauna da. Giza-izatea ta etorkizuna, emen, bere zabalera osoan ulertzen dozuz: orregaitik, fede, erlegiño, etika eta inguruko berbakaz esan nai diran ideak be itaun orren barruan sartzen dira. Kontzientzi kritikoak egindako itaun orreri «fede» edo sinismen edo zentzu-emote edo izate-erabagi diferenteakaz erantzun leikio eta erantzuten jako. Esate baterako, kristau fedearen zentzu-emote eta erantzunaz. Edo ateoaren sinismenagaz (sinismenā da-ta). Eta erantzunak ez dabela balio esanez, itaunean bakarrik geratu gura dauanak be orixe diño: ez dagoala erantzunik, eta beraz ori da bere erantzuna eta bere erabagia.

Baiña bere kontzientzi kritikoaren barruan kristau fedearen zentzu-emotea aurkitu dauanak ezin leike fede ori kontzientzi kritikorik ez balego lez onartu. Kontzientzi kritikoak fede ori

ikutuko ez baleu lez. Ain zuzen be, kontzientzi kritikoak bere esentzi jatorrean itauna dalako eta kristau fedea itaun ori emondako erantzuna dalako.

## 2. Isteria igarri-eziña

Gizonaren izakeretariko bat istorikoa izatea da. Eta au be-  
rau be istori barruan, istori esperientziz ikasi dogu. Eguneroko bizitzako jakite eta trebetasunak ezeze, bere izate osoari buruzko zentzu-emotea be aldatu egiten dala istorian zear. Zenbat eta zelan eta zin zentzutan aldatu, ori eztabaidatu leiteke. Baiña aldatzen danik ezin leike ukatu. Aldiz-aldi istorian zear jazorikoa or dogu, eta baita lurralde diferentetan aurkitzen ditugun zentzu-emoteak (bakotzaren istoriaren frutuak). Aldakuntzaz berba dagigunecan, ez dogu dana guztiz aldatzen danik esan nai; leengoa guztiz ezezturik: leengo ta bein, *gizonaren* kontzientziaz dagigu berba; dana aldatu ta ezeztutea balitz, ezin izango geunke zentzuncz *gizonari* buruz berbarik egin. Aldakuntza guztien artean edo buruan be gizonaren nortasuna ez dogu galtzen, eta izatekotan geroago eta geiago jarten jaku geure kontzientzi aurrean (nai ta ez derrigor eta beti). Orregaitik, istoria igarri-eziña dala esatean ez dago baieztatzen gizona ezeztuten daben gauzak be, egunen baten, istoriaren aldakuntzan, «ondo» egon leitekezanik. Ori baieztatzea, eta beraz etorkizunaren zabalera olan ulertzea, oraintxe bertan gizona ukatzea litzake.

Bigarren, kristau fedean badago eskatologi alderdi bat, au da, Kristo Jaungoikoaren «azken» berba pertsonala dala. Obeto esanda, idea au ez da benetan kristau fedearen alderdietariko bat, bere esentzia baiño. Kristo nor dan (guretzat) azaltzeko era bat baiño ez da-ta. Baiña au onartuta be, kristau istori guztiak, beste alderdi batetik, au erakusten dauku: istorian eta istoriari eta istoriaren jarraian emondako doaia dala. «Azken» orrek ez dau istoria kentzen, istoriaren zabalera eta etorkizuna. Leenago gizonaz esan dogunaren antzekoa jazoten da emen be: «azken» ori emonda dago, baiña istoriaren eñean bere barrutik emoten joango dan doaia dogu.

Beraz, ez gizonaren izateak eta ez kristau fedearen azkenta-

sunak ez dabe debekatzen istoriaren zabalera edo etorkizun barria edo aldakuntza. Baiña, batera, giza izaterik bada eta kristau azkentasunik bada, aldakuntzak ezin leitekez edozetarikoak izan: *dan* ori ukatzekoak ezin leitekez izan.

Aldakuntza berez ez da balorarik, edo obeto, aldakuntzak dakarran egoera barria ez da berez eta beste barik aurrekoa baiño ohea. Esate baterako giza-duintasunetik eta bardintasunetik miseri eta esklabutzarako aldakuntza be egin leiteke giza istorian, eta ez da errazoirik atzerakuntza ori arlo guztietan jazo ezin daiten. Baiña, dana dala, aldakuntza ori gertatu izan danean, eta giza orizonte barria sortu, gizatasunaren eskakizunak eta kristau fedearen erantzuna be orizonte barri orretan egiztatuko dira. Esate baterako, gure kontzientzi orizontean poligamia egokia izan ez arren, beste gizarte eta kontzientzi egoera baten izan leiteke egitez txarrik txikiena. Jakiña, ikutu dogun idea onek badau arrisku au: istoria dan moduan justifikatzea. Arriskua danik ezin leiteke ukatu. Baiña justifikatu ez da justifikatzen edozein egoera, momentu bakotxean giza-ondasunik aundiena lortzeko idea azaldu baiño.

### 3. Gizona jokoan

Gaurko erlegiñoari buruzko kontzientzi kritikoaren inguruan badira bape kritikoak ez diran jarrerak: konsumismoa eta azalkeria. Alderdi batetik gizonarentzat aberasgarri diran komunikabideak zalantza barik parte artzen dabe jarrera orreek ugaritzen. Gaurko izakeraren alderdietariko bat errezkeri ori dogu arlo guztietan, eta ez gitxien (gure artean) erlegiñoari buruz. Baiña au pentsa bear da: kristau fedear eta erlegiñoaz berba dagigunean, gizonaz eta bere zoriaz dagigu. Erlegiñoa ukatzea era berean gizona ukatzea da: erlegiñoak gizona azkenbako duintasun dauan izakitzat definitzen dau (ez erlegiñoako berba batek edo bestek olako zerbait diñoelako: erlegiñoaren esentziak berak diño ori, edo ori erlegiñoaren esentzia da). Erlegiñoa ukatzea logikaz, gizonaren «eskubidea» eta etika ezeztutea da. Erlegiñoa ukatzen dauanak gizona, azken baten, munduko beste edozein izaki lakoa dala autortzen dau, eta bere «eskubideak» eta egite-

koak egoki ta konbenigarri diran gauzak dirala, baiña ez «persona» eta «eskubide» eta «etikaz» azaldu nai dan errealidade absolutoa. Fedeaz edo erlegiñoaz arinkeriz eta lotsabakokeri arroz jotzen dauanak ez dau ulertu zer dan arazoa, ez da eldu kontzienti kritikora eta gitxiago oindiño gaur erlegiñoak, jatorturik, bere izateaz dakianera.

Bestalde, olako gizarte jokacren aurrean, erlegiño eta konkretoak nondik eta zegaitik sortzen diran areek pentsatu bear dau zelako igaro-eziñeko pantallak jarri izan jaken gogobiotzai, erlegiñoaren esentzia susmatu ezin dagien.

Eta, gero, gaurko erlegiño kontzientziak badaki au be: berbaz eta zuzeneko ideaz ukatua izan arren, erlegiñoaren (fedearren) esentzia baieztatu leitekela bizitzaz: giza naimenak, askatasunak, crantzukizunak eratzen daben benetako errealidadcan. Erlegiñoak (erlegiño erreflesiñoak) badaki bere azaleko itzak eta egiteak baiño askoz zabalago dala erlegiñoaren esentzia. Eta beraz ez erlegiñoari buruz eta ez gizadiari buruz azken baten etsiperari ez jakola sarretarik emon bear. Alan be, giza-izateari dagokio bere sakoneko bizikuntza kontzientziaren argitara ekartea, osorik bizi ta egiztatzeko. Orregaitik kristau fedea asikeratik, bere izatetik beretik, izan da «barri-on» emoillea. Eta barria on ori entzuna, ulertua eta onartua ez dan artean, kristau fedea arritu egingo da (ez etsipetu) eta ezin-egonean egongo da.

#### 4. Elizaren ekintza

Emen be konparaketak egitea ez da egoki bearbada, ez ziu-rra, baiña baliteke gaurko Eleizea beste gizaldi askotakoa baiño garbiagoa eta jatorragoa izatea. Ogcigarrren gizaldian egin dau, eta egiten dau, aalegiñik bere kristau fedearren esentzia billatzen eta gaurko gizonari barrutik, istoriaren barrutik, erantzuten. Ebangelioari leial izatea billatu dau (bere esentziaz jatorrago konturatu) eta batera gizonari «barri ona» bere-berckotzat argitzea. Olakorik egin izan dau Eleizeak bere istori luzeko gizaldietan, baiña gaurko kontzientzi zabalaz, unibertsaltasunaz eta istoriako gizon konkretoari erantzuteko aurdurez iñoz bere ez

bearbada gaur lez (konparaketa au batez be, gaurko egoeraren aalegiña eta aldakuntza andia ulertzeko artua izan bedi, istori-konparaketak eskatzen daben arretaz eta oarpenaz).

Aldakuntza geien baten, gure artean batez be, Vatikanoko IIaren ostean jaso izan, eta burutuz doa, baiña leenagotik asi zan, nai ta ez geroko zabaltasun eta unibertsaltasunaz.

Jatortasun au dogmatikan gertatu da. Kristau fedea pentsakera mitologiko eta istori kultura mailla diferenteak jarritako koskol gogorretatik askatzeko. Au pentsalarien egitekoa izan da, baiña Eleiza ofizialak eta arduradunak be osoan eta geien baten onartu ta bultzatu dau aldakuntza au. Kristau etikaren zentzuna eta ikuspegi barria ta jatorragoa lortzen be izan da aalegiñik, emen be ebangelioaren grazia eta gizonaren salbamenea gidari izan dirala. Pastoralgintza konkretuan artutako tradiziño indarbakoari jarraitu bearrean, errefleziño eta erabagi barriak artu dira, katekesian, sakramentuen errealizaziñoan, erlegiño ekintza zuzena bizitzako konpromisoaz lortu naican. Ain zuzen be munduko arazo larri guztien ardurea da gaurko Eleizaren bereizgarrietariko bat.

Ez gabiltz emen egindakoaren goralpena eta apologia zabaltzen, orretan onezkeroko nasai atsedean artzeko. Egindakoak begiak edegiten daukuz geratzen danaren zelai neurribakoa ikusteko. Asi bakarrik egin garala konturatzen gara. Esate baterako, eta moral arloko puntu batzuei gagokiezala, ikusi gaurko bake ta iskillu eta gose-miseri erazoak; famili eta sesu morala osorik eta neurri ulertu bearra; gaurko genetikak sortzen dituan itaunen naasmen eta noraeza. Beste arlo baten, ia aipatu barik izteko, itxurazko ateismoaren zabalera.

Mundu larri onen aurrean, ez ete da kristau fedea makal eta indargabe lez agertzen? Burututako aalegiñaren ostean, begitu, barriro be esate baterako, kristauen igandeko eukaristi ospakizuna eta abar, apaiz eta erligioso bokaziñorik-eza sartaldeko Eleizan, gizartearen eta partikularren moral independentzia.

Alan be, eta orrexegaitik ain zuzen be, gaurko Eleizea gar-

biagoa eta jatorragoa da. Eskintza eta serbitzu lez ulertzen dau bere eginkizuna, eta etsipenean jausi barik, itzaropentsu jarraitzen dau bere ekintzaren frutuak bere eta istoriaren Jaunaren eskuetan eta bide mugagabeetan itzirik. Badaki asi baiño ez dala egin bere bide orretan. Baiña, batera, badaki bere eragin zuzena ez dala neurtzen zenbaki konkretoakaz, eta agiriko Eleizatik kanpora be ebangelioaren eta Eleizaren ekintzak badaula ixilleko eta izenbako eragin eta fruturik.

*Luis Arostegi*